

## **BIDAIAN**

Amaia Zabala Madariaga

*Gernika-Lumo*

Zeharkatzen ditu lurra eta itsasoa  
Joan etorrian ematen du ia bizitza osoa  
Mendiak, haranak, errekak eta basoa  
Baita herriak, hiriak eta industria poligonoa  
Bidaiatzen du, bai egun zein gauean  
Eguraldi petral zein epelean  
Goizean irten eta segi arratsean  
Ilgora ilbehera eta ilargi betean  
Arriskuari erreparatu gabe badoa  
Ingurukoak zainduz bai sanoa zein gaixoa  
Beti alai mantenduz inguruan giroa  
Bidaiarekin omenduz bere arbasoa  
Eta pentsatzen dut ikusten dudanean  
Berdina ote da Afrikan eta gurean  
Enararen dantza airean.